

Kantauriko kosta 'udako operazioan' sartu dute

MADRIL

Espainiako Barne eta Justizia Ministerioak 'udako operazioa' deitzen den dispositibo polizialaren barruan sartu du aurten Kantauriko kosta. Aipatu operazioa uztailaren batean jarriko du martxan, oporretan zehar hondartzak eta kostaldea Poliziaren zaintzapean izateko.

Euskal Herria ere 'udako operazioaren' barruan sartzearen helburua trenbidea ere zaintzea da sabotaiarik izan ez dadin, Barne eta Justizia Ministerioi iturriek azaldu dutenez.

Operazioan guztira 10.000 agente mobilizatu dira, Goardia Zibileko eta Polizia Nazionalako agenteak. Bereziki Balear irletan eta Mediterraneo kostaldean zabaldu dira poliziak, turista gehien biltzen den lekuetan.

Aipatu polizien lana hiri segurtasuna izango da, eta ETaren ekintzak eta droga trafikoa eragozteko izango da bereziki beren helburua, Margarita Roblesek zuzentzen duen Estatu Barne Idazkaritzako iturriek azaldu dutenez.

Bestalde, Roblesek Gubernuko ordezkari eta gobernadore zibil guztiei instrukzioak igorri dizkie Estatu Segurtasun Indarren funtzioak polizia lokalek dituztenekin ahalik eta gehien koordinatzen ditza.

Xabier Markiegi EAeko Ararteko izendatuko du bihar Legebiltzarrak

PP, UA, PSE-EE eta EAJren botoei esker izango da Ararteko

Gasteizko Legebiltzarrak Xabier Markiegi EAeko Ararteko izendatuko du bihar. PSE-EEK Markiegi aurkeztu zuen Juan San Martin ordezkatzeko eta hasiera batean EAJren eta UAren laguntza lortu bazuen ere, azkenean PPK alde bozkatzeko duela jakinarazi du eta behar dituen 45 botoak lortuko ditu.

F.I. / GASTEIZ

Legegintzaldiko azken ohizko osoko bilkura egingo du bihar Legebiltzarrak eta bertan EAeko Arartekoa aukeratu dute. Markiegi legebiltzarkide independentea da San Martin ordezkatzeko duena behar dituen 45 botoak lortuko baititu.

EAJ, PSE-EE, UA eta PPre artean 47 boto izango ditu Markiegi. Negoziazioak luzeak izan dira hasiera batean PP ez zegoelako Markiegi izendatzearen alde. Oposizioarekin negoziatu ez izana aipatu zuen Jaime Mayor Orejaren alderdiak Markiegiren kontra agertzeko, eta halaber Jaurlaritzakoen aldeko jarrera egotzi zion. Izan ere Markiegi legebiltzarkide independentea den arren, gehienetan EAJ eta PSE-EE lagundu ditu Legebiltzarrean.

Hasierako kontrako jarrera aldatu egin du hala ere Alderdi Popularrak. Eta aldatzeko arrazoi bat badago: Markiegiren bigarrena PPKoa izango da. Jesus Maria Arteaga duela bost urte



Xabier Markiegi euskara ez jakiteak protestak eragin ditu. X. SIMAL

San Martinen bigarrena aukeratu zuen Legebiltzarrak PPK horrela eskatu baitzuen. Orain kargu berean segituko du. Markiegi, bestalde, legebiltzarkide izateari utzi egin beharko dio, araudiaren arabera Arartekoak, independentea izateaz gain, ezin duelako beste kargu instituzionalik izan.

EUSKALDUNA IZATEAREN GARRANTZIA

Eusko Alkartasuna eta Herri Batasuna Markiegi Ararteko izendatzearen aurka daude. Uste dute kargu hori betetzeko ezinbesteko dela euskara jakitea, eta Markiegi ez du gure hizkuntza menperatzen. Koalizio abertzaleak, gainera, uste du Jaurlaritzaren alde egin

duena ordaintzeko aukeratu dutela Markiegi.

Juan San Martin orain arteko Arartekoak ere garrantzitsutzat jo du euskara jakitea, euskararen aldeko hainbat erakunde bezala. Euskal Kulturaren Batzarreak, esaterako, bere protesta agertu zuen Markiegi Ararteko izendatuko zutela entzuten hasi zenean. Jakinarazi zuen agiriak honako hau zioen: «Ararteko erdaldu bat jartzea legea zapuztea litzateke honekin batera euskaldunon hizkuntz eskubideak ere kaltetuak suertatuko lirakeelarik, euskara ez dakien batek ezin go bailituzke euskaldunon ke-
xua behar diren bezala bideratu».

Epaiketetan kameren sarrera arautu behar dela dio epaile batek

ONATI

Juan Jose Lopez Ortega Espainiako Auzitegi Konstituzionaleko epailea komunikabideek eta, batez ere, telebistako kamerek epaiketetara sartzeko bete behar dituzten baldintzak arautzearen alde agertu zen atzo Oñatin.

Lopez Ortega azpimarratu zuenez, egun ez dago araudirik eta azken erabakia epaileek hartzen dute, euren irizpideen arabera. Honek, epailearen iritziz, «zailtasunak» eta «arriskuak» besterik ez ditu sortzen, komunikabideek tratu ezberdina jaso dezaketelako epaileen aldetik.

Komunikabideek gehiegikeriaren bat egin ote duten ez zuen argitu Lopez Ortega, orain arte ez baita kezarik egon kazetarien lanagatik. Hala ere, kamerak epaiketetan sartzeari auziperatuak, biktimak eta lekukoak babesik gabe gelditzen direla ohartarazi zuen. Epailearen iritziz, «arriskutsua da kasu batek jendaurrean hain publikitate zabala edukitzea».

Lopez Ortega Italiako legedia hemen ezartzearen alde agertu zen. Italian argazkilariek eta telebistako kamerek baimen judiziala behar dute epaitegira sartzeko. Komunikabideen sarrera onartzeko epaileak auziarekin zerikusia duten pertsonen baimena eduki beharko lukeela ere gehitu zuen Lopez Ortega.

Legebiltzarrak uztailaren 4an bukatuko du Osakidetzari buruzko ikerketa

GASTEIZ

Osakidetzako oposaketetan izan zen iruzurrari buruzko ikerketa uztailaren 4an amaituko du Euskal Autonomi Elkarteak Legebiltzarrak. Egun horretarako ez-ohizko osoko bilkura antolatu dute ikerketa batzordeak egin duen txostena berresteko. Osakidetzakoa EAeko Legebiltzarrean osatu den lehenengo ikerketa batzordea izan da.

Legebiltzarreko ez-ohizko plenoaren aurretik, ekainaren 29an eta uztailaren lehenen, batzordeak berak eztabaidatuko du Osakidetzako iruzurrari buruz Pablo Ruiz de Gordejuela batzordeko lehendakariak landutako txostena. Txosten hori alderdi politiko guztien esku dago dagoeneko, eta hilaren 29ko eta uz-

tailaren 1eko bileretan beren alegazioak aurkeztuko dizkiote irregulartasun eta balizko erantzukizun politikoen inguruko txostenari.

Aipatu batzordea joan den martxoan osatu zen eta bederatzi alditan bildu da. Irregulartasunak gertatu ziren oposaketetan deialdi prozesuarekin eta azterketen zuzenketan erlazionatuta egon ziren pertsona ugari deitu ditu deklaratzera.

Ikusmin handiena batzordearen lehenengo bilerak sortu zuen. Jose Manuel Freire 1990ean Osasun sailburu zenak, eta Mario Gonzalez orduan Osakidetzako zuzendari nagusia zenak deklaratu zuten egun horretan batzordean. Biak alderdi sozialistakoak.

Freirek Gonzalez akusatu

zuen —orduan iruzurrean auzipetuta zegoen bakarra zen— oposaketan azken erantzulea bera izateaz eta berak inolako erantzukizunik izan zuenik ukatu egin zuen.

Egun hartan bertan, Iñaki Azkuna egungo Osasun sailburuak esan zuen trama organizatu batek egin zuela iruzurra. Iruzurra PSEren eta UGTren inguruko pertsonen onerako izan zen.

ABASOLOREN DEKLARAZIOAREN ZAIN

Ikerketa batzordearekin batera, kasua Gasteizko epaitegian ikertu da, baina sumarioa sekretupean dago. Epaileak lau pertsona kartzelaratzeko agindu zuen joan den martxoan. Horien artean dago Osakidetzako kudeaketa ekonomikoaren zuzen-



Ikerketa batzordeak bihar eztabaidatuko du txostena. OIALDE

dari ohia, Pedro Perez. Orain egun gutxi PSE-EEko lau militante horien askatasuna ukatu egin zuen fiskalak iruzurrean zerikusia izan zuela dioten «aztarna erabakiorrak» daudela esanez.

Azterketak zuzendu zituen

Euro Apprasail enpresako zuzendariaren deklarazioak Parisetik noiz igorriko dituzten zain dago orain epailea. Izan ere, Francisco Javier Abasolo zuzendaria Parisen kartzelaraturik dago beste iruzur kasu batengatik.